


**VILLA MARIA JOSE**  
C MAILA

**SAN BARTOLOME 37**



**Egilea eta data: Ramon Cortazar, 1909**

### Deskribapena

Eraikin adierazgarria, jatorrian jauretxeetarako aurreikusitako etxadi baten izkinako soluzio gisa. Proiektua 1909koa da, Ramon Cortazarrena. Eraikinak erdisotoko eta bi goi oineko profila du, mantsarda moduko estalkipean. Harlanduzko fatxadaz eta harlangaitz horma ilaratuz eraikia da. 1941ean, Pedro Gaiztarrok mantsarda ezabatu eta beste oin bat jaso zuen, hareharrizko harlanduz eta terrazan errematatua. Gainera, garajearen sarrera gainean begiratoki bat erantsi zuen eta sarrera nagusia San Bartolome kalera lekualdatu zuen, beste biribilgune bat eta portada bat eginda, bere sarrera eskailerekin. Oro har, elementu berri horien eta dituzten dekorazio xehetasunen gauzatze kalitatea nabarmentzen da. Oin berria friso moduan geratzen da jatorrizko erlaitzaren gainean, zati itsuetan pilastra ordenaz dekoratuta, eta, goialdean, eragin neoplatereskoetako baranda tarteak, karelak eta gailurrerriak erantsita.

### Babes erregimena

- 1.- Babes erregimen orokorra:  
Plan Berezi honen C babes mailan sartzearekin loturikoa.
- 2.- Berariazko babes erregimena:
  - A.- Babesetik kanpo utzitako fatxadaren elementuak edo zatiak: arotzeria.
  - B.- Fatxadaren elementu edo zati iraunkorrak: emokadurak, harlandua eta burdineria.
  - C.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: ez.
  - D.- Nahitaezko lehengoratzek: pertsiana tolesgarriak, begiratokian izan ezik.